

Montes de Vitoria



Gasteizko mendiak
2019ko ekainean
Bi urtean behin

Kirola egitea eta inguruneaz gozatzea. Bere izenak dioen moduan, mendikate honek dituen hainbat gaineratik pasatzea da mendi-lasterketa honen helburua. 62 kilometro inguru eta ia sei mila metroko desnibel metatua. Eta hori guztia Gasteizko hiria ia inoiz bistatik galdu gabe.

‘Gasteizko Mendiak’ proba etapa bakarrean garatzen da eta gogortasun nabarmeneko da.

1997an sortu zenetik, kirol-hitzordu hori, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Estatuko mendi-proba ezagunenetakoen artean finkatzen joan da, orain arte egin diren edizioetan. Ibilbideko paisaia naturalen edertasunaz gain, ibilbidea osatzen duten lehendabiziko 100 pertsonak automatikoki lortuko dute hurrengo urtean egingo den ‘Hiru handiak’ proba ospetsuan parte hartzeko “izena emate erreserba”. Pizgarri gehigarria ere badago, antolakuntzak beste 100 inskripzio zozketatuko baititu, kirol erronka hori amaitzea lortzen duten gainerako kirolarien artean.

Lehiaketa ondo garatu dadin, Manuel Iradier Txangolari Elkarteak eta Vital Fundazioak boluntarioren lankidetzaz izango dute, baita lasterketaren ibilbidean dauden paraje naturaletako herrietako udalen laguntza ere.

Informazioa eta izena emateak

Proban parte hartu nahi dutenek informazioa hartu eta izena eman daitezke
www.manueliradier.com webgunean.

Fundación Vital Fundazioa
Kordoi Etxea, Aiztogile 24, Vitoria-Gasteiz
945 776 858
info@fundacionvital.eus